


GAINDITZE ISTORIOAK

Aneren istorioa


Ane Donostian jaio da eta gorabehera handirik gabeko bizitza darama, bere adineko edozein neskaren ohiko arazo eta ametsekin, bere familia eta lagunek babestuta.



13 urte

Hassanen istorioa

Hassan Tangerangren jaio da eta 13 urterekin Europara bidaiatzea erabaki du, kamioi baten ardatzean ezkatututa, etorkizun hobe baten bila. Presio handia sentitzen du, familiak berarengan jarri baititu itxaropen guztiak.



Anek bizitza osoa darama ikastetxe berean eta lagun-talde egonkorra du. Gurasoek irakasle guztiak ezagutzen dituzte eta bera seguru sentitzen da ondo ezagutzen duen ingurune batean.




14 urte



Donostiara iritsi ondoren, harrera zentro batean sartu zuten Hassan. Oztopo asko gainditu ondoren, eta hezitzaileen laguntzarekin, gaztelera ikasten ari da eta DBHko 2. mailako ikasketak hastea lortu du. Orain, urrats bat gertuago sentitzen da bere helburutik.

Ane oso ondo moldatzen da familiarekin, eta badaki beti egoten direla hor behar dituenean. Baina nerabe orok bezala, bere espazioa behar du eta, batzuetan, gurasoek estu hartzen dutela sentitzen du, eta zakar samarra da beraiekin.




15 urte




Batzuetan, Hassanek nostalgia sentitzen du eta egunerokoa aldapan gora egiten zaio. Bi urte daramatza Tangerangko familia ikusi gabe, eta, telefonoz maiz deitzen dien arren, faltan botatzen du etxean sentitzen zuen berotasuna, betidanik egon baita haiekin oso lotuta.

Ane urduri samar dago, erizaintza ikasi nahi duelako, baina ez daki USBEn ebaketa-nota gaindituko duen. Gurasoek bere ametsaren atzetik joan dadin animatzen dute.




17 urte



Hassanek babesa eta maitasuna aurkitu ditu Izeba Nekane-n. Arratsalde eta asteburu asko ematen ditu berarekin eta familiarekin. Konfiantzazko pertsoneri aholkua eskatu ondoren, Hassanek elektrizitate maila bat ikastea erabaki du.

Anek ilusioz ospatu du 18 urte bete dituela; izan ere, behar zuen nota lortu ondoren, nahi zuen karrera ikasi ahal izango du. Urduri dago, baina etorkizuna aukeraz beteta agertzen zaio.



Hassanek beldurra sentitzen du adin nagusitasunera iristean, adingabeen etxebizitza utzi behar duelako eta etorkizuna zalantzazkoa delako. **Hainbeste ahalegin eta sakrifizio egin ondoren, orain bere ametsei uko egin beharko al die?**

Ane bere karrerako azken urtean dago eta Erasmusetik Glasgowko unibertsitatera joateko ametsa lortu du. Esperientzia ikaragarria izaten ari da, baina faltan botatzen ditu familia eta lagunak. Orain inoiz baino gehiago baloratzen du gertu izateak duen garrantzia.



21 urte




Zailtasun sozialeko gasteentzako etxebizitza utzi behar zuenean, enpresa batek praktiketako kontratua eskaini zion Hassani. Horri esker, etxebizitza partekatu batera joan da bizitzera eta esperientzia profesionala irabazi du. Bere «izeba» Nekanerekin batera, kontratu bat lortu duela ospatzen du.

Ane Donostiara itzuli da Erasmusaren ostean, eta pozik dago familia berriz besarkatu duelako. Gainera, laster hasiko da lanean.



22 urte



Hassanek bere enpresan finko bihurtzea lortu du eta bere bikotekidearekin bizi den etxebizitza bat alokatu ahal izan du. Lanean hasi zenetik, aldan-aldan dirua bidali dio familiari. Gainera, uda honetan bisitatzeko aurreztu du, hainbat urtez aurrez aurre ikusi ezin ondoren.

Aste Nagusia da eta Ane bere koadrilarekin joan da suak ikustera. Kasualitatez, Hassanekin topo egin du eta aurpegi ezaguna egiten zaio. Zalantza txiki baten ondoren, hurbildu eta galdetzea erabaki du.



BARKATU, USTE DUT ZU ETA BIKOIKASTE TXE BERERA JOAN GARELA...

HAU KASUALITATEA BA BAI, ZU B KLASERA JOATEN ZINEN, EZTA? POZTEN NAIZ ZU IKUSTEAZ, ZER MODUZ JOAN ZAIZU DENA?

Hassan bere «izeba» sendiarekin dago. Eurekin igaro zuen bere lehen Aste Nagusia eta suak ikusi zituen lehen aldiz. Une hau beraiekin partekatzea tradizio bihurtu da berarentzat, eta ez du urte bakar bat ere galtzen.

Ane eta Hassanen istorioak ez dira hemen amaitzen. Istorio irekiak dira, eta haien amaiera denon artean idazten dugu. Elkar gurutzatzen eta aberasten gaituzten bizitzak. Ispilu horietan, antzekotasun gehiago ikus ditzakegu, ezberdintasunak baino.

Gehiago jakin nahi duzu "Izeba" eta "Iloba" proiektuei buruz?

ESKANEAU

